

A26 - Grabitzen duten gorputzak: Nola integratu artea eta zientzia

Ikasleak zientzia eta teknologiarara hurbiltzeko jarduera, artea eta sormena txertatuz. Donostia International Physics Center DIPCKo aditu batek talde-dinamika sortzaileak eta performatiboak garatuko ditu ikasgelan, grabitazio-eremuarekin lotutako kontzeptuak ulertzen eta esperimentatzen laguntzeko.

Kurtsoa/Maila

2. Batxilergoa

Datak

2024 iraila - 2025 apirila

Ikaskuntza-arloak

Fisika

Kultura Zientifikoa

Marrazketa Teknikoa

Jarduera formatua

Aditua ikasgelan

Hizkuntza

Gaztelania

Irismen geografikoa

Araba/Álava, Bizkaia, Gipuzkoa

Entitatea/Enpresa

DIPC

Baliabide materialak eta ekonomikoak

Ikusi fitxaren amaiera

STEM Deskribatzaileak

STEM 2

STEM 3

STEM 4

STEAM Printzipioak

P1

P2

P5

Prestakuntza

Irakasle-Profesionala

DIPCKo adituak orientazio- eta aholkularitza-lana egiten du proiektuan lantzen diren kontzeptu zientifikoei buruz, esparru zehatz horretan espezializatutako ikertzailearen ikuspuntutik.

Jarduera gauzatzea

Hiru dinamika garatuko dira:

- **SARRERA:** sentsazioen bidez, honako ideia hauek sartuko ditugu: testuinguru fisikoa, gure burua, gure gorputza, grabitatea, grabitazioa, grabitazio-orbita eta espazioaren/denboraren kurbadura.
- **OBJEKTIBOGRAMA:** sistemako elementuen edo agenteen eszena bat taldean ikusteko dinamika, horietako bakoitza espazioan kokatutako eguneroko objektu bati lotuz. Galaxia bat irudikatzea aukeratu dugu, adituak emandako material eta objektuen bidez.
- **EKINTZA SINBOLIKOA** "Zizare-zulo bat": Saioan gertatu denaz, saiora nola etorri garen eta saioaren ondoren nola atera garen kontzientziatzeko ariketa egiteko dinamika.

Horrela, jardueraren bidez, ikasleek arteen/sormenaren eta arazo zientifiko-teknologikoen arteko lotura egin ahal izango dute, ezezagun desberdinei erantzunak bilatuz eta bi eremuak inguruko errealitatera hurbilduz.

Integrazioa ikasgelan

Ikasleek problema edo proiektu egoeran ikasitakoa aplikatuko dute eta jarduera baloratuko dute.

A26 - Grabitatzan duten gorputzak: Nola integratu artea eta zientzia

Curriculumarekin lotura

Jarduerarekin zerikusia duten curriculum ikasketak:

Kultura zientifikoa

- Etorkizunerako erronka zientifikoak eta lehentasunak
- Unibertsoa: galaxia, kosmosa eta zizare-zuloaren kontzeptuak eta definizioa.

Teknologia

- Eremu grabitatorioa.
- Zentzu sozioemozionala:
 - Espazioaren kontzeptualizazioa arrazoitik eta emoziotik eta gorputzaren sentzazioetatik sartzeko.
 - Sentzazioen bidez, testuinguru fisikoa, burua, gorputza, grabitatea, grabitazioa, grabitazio-orbita eta denbora-espazioaren kurbadura.

Baliabideak

Baliabide materialak:

- Materialak: ikasleek ekarritako eguneroko objektuak eta irakasleek prestatutako oinarrizko objektuen kita (koloretako sokak, oihal beltza, inbutua, linterna eta banda elastikoa).

Baliabide ekonomikoak:

- Jarduerarako behar diren materialen ondoriozko gastuak.